



URTEKARIA 2019

Etxerat
Euskal Preso eta Iheslari Politikoen
Senide eta Lagunen Elkartea



1. ESPETXE POLITIKA

1.1: SAKABANATZEA ETA URRUNTZEA

- Datu orokorrak
- Lekualdatzeak
- Espainiako Estatuko hurbiltze politika
- Frantziako Estatuko hurbiltze politika

1.2: Graduen politika

1.3: Baldintzapeko askatasuna

1.4: Larriki gaixo diren presoak

1.5: Bakartzea

1.6: Senitarteko eta lagunak: istripuak

2. ERBESTERATUAK - DEPORTATUAK

3. ESPETXE POLITIKAREN KONTRAKO EKIMEN POLITIKA

4. ONDORIOA

1. ESPETXE POLITIKA

1.1: SAKABANATZEA ETA URRUNTZEA

DATU OROKORRAK / EPPK-REN EGOERA

2019ko abenduaren amaieran 244 euskal preso politiko zeuden espetxeratuak: 209 gizon eta 35 emakume; gainera, hiru urte baino gutxiagoko 5 haur aurkitzen ziren euren amekin batera espetxeratuak eta urrunduak.

- 3 euskal preso aurkitzen ziren, gaixotasun larri eta sendaezinengatik espetxe arinduan.
- 244 preso aurkitzen ziren sakabanatuak: Espainiako Estatuko 39 espetxetan, 205, eta Frantziako Estatuko 8 espetxetan, 37.
- Euskal Herrian soilik 2 euskal preso politiko zeuden: bat Zaballan eta bestea Gasteizko *Besarkada Etxea* Zentroan.

Espainiako Estatuan: 205 euskal preso politiko.

- 135 (118 hommes et 17 femmes + 4 enfants) = 66%, dans des prisons situées à des distances comprises entre 600 et 1.100 km d'Euskal Herria.
- 42 (32 hommes y 10 femmes + 1 enfant) = 20%, dans des prisons situées à des distances comprises entre 400 et 590 km d'Euskal Herria
- 28 (27 hommes y 1 femme) =14%, dans des prisons situées à des distances comprises entre 150 et 390 km d'Euskal Herria.

Frantziako Estatuan: 36 euskal preso politiko.

- 8 euskal preso politiko, etxetik 1.100 eta 600 kilometro arteko distantziara dauden espetxeetan = %22
- 28 euskal preso politiko, etxetik 390 eta 100 kilometroren arteko distantziara dauden espetxeetan = %78



Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
**Senide eta Lagunen
Elkartea**

LEKUALDATZEAK

- Espainiako Estatuaren hurbiltze politikari dagozkion 16 lekualdatze.
- Frantziako Estatuako hurbiltze politikari dagozkion 5 lekualdatze.
- Sakabanatze politikaren ohiko lekualdatze dinamikari dagozkion 11 lekualdatze:
 - Espainiako Estatuako lekualdatzeen 10 kasu hauetako 5etan presoak urrundu egin dituzte.
 - Frantziako Estatuako lekualdatze 1

ESPAINIAKO ESTATUKO HURBILTZE POLITIKA

Espainiako Estatuan "hurbilketa" deituak hasi zirenetik, Euskal Herriko espetxeetara egindako lekualdatze bakarra 2019an gauzatu zen: Xabier Sagardoï Iruñeako espetxera lekualdatu zuten, zigor osoa bete eta gero aske utzi baino soilik 28 egun lehenago.

Beste 15 "hurbilketetatik":

- Aske utzi baino 4 eta 10 hilabete lehenago egin ziren 2 hurbilketa.
- 6 kasutan bakarrik lekualdatze horiei esker 500 kilometro baino gutxiagoko bidaiak egin beharko dituzte senitarteko eta adiskideek, presoak bisitatzeko:
 - Logroñora bi lekualdatze: Euskal Herritik 140 kilometrora (280 km)
 - Burgosera lekualdatze 1: Euskal Herritik 210 kilometrora (420 km)
 - Soriara 3 lekualdatze: Euskal Herritik 225 kilometrora (450 km)
- 9 kasutan, 500 eta 900 km-ren arteko bidaiak egin behar dira:
 - Mansillara lekualdatze 1: Euskal Herritik 360 kilometrora (720 km)
 - Zuerara 3 lekualdatze: Euskal Herritik 270 kilometrora (540 km)
 - Villabonara 2 lekualdatze: Euskal Herritik 400 kilometrora (800 km)
 - Darocara lekualdatze 1: Euskal Herritik 340 kilometrora (680 km)
 - Topasera lekualdatze 1: Euskal Herritik 450 kilometrora (900 km).

FRANTZIAKO ESTATUKO HURBILTZE POLITIKA

- Frantziako Estatuan dauden 30 euskal preso politikoetatik 26 Lannemezan eta Mont-de-Marsan-go espetxeetan aurkitzen dira, hots, Euskal Herritik hurbilen dauden espetxeetan. Beste bi preso toki hauetan aurkitzen dira: Euskal Herritik 370 kilometrora dagoen Muret-en, preso bat, eta 490 kilometrora dagoen ST. Martin de Ré-n, bestea. Josu Urrutikoetxeak La Santé-ko espetxean jarraitzen du, espetxeratu zutenetik, Euskal Herritik 850 kilometrora.
- Euskal Herritik hurbilago dauden espetxeak baldintza txarretan egoteak eragin lezake euskal preso politikoak urruneko espetxeetan edukitzea: Rennes, Euskal Herritik 740 kilometrora; Roanne, 790 kilometrora, eta Reau-sud-Francilien, urrunen dagoena, 870 kilometrora.

1.2 LEKUALDAKETAK - Traslados - Transferts

		Espetxetik: De la prisión de: De la prison de:	Km	espetxera: a la de: à celle de:	Km
Comes Arranbillet, Olga	2019-01-14	MANSILLA (Leon)	360	VILLABONA	400
Beaumont Etxebarria, Iñaki	2019-01-17	GRANADA (Albolote)	840	SORIA	225
Ginea Sagasti, Josu	2019-01-17	ALMERIA	960	MANSILLA	360
Lopez Gomez, Jon	2019-01-02	HERRERA	600	ZUERA (Zaragoza)	270
Sola Campillo, Aurken	2019-01-18	ALGECIRAS	1100	BURGOS	210
Atristain Gorosabel, Javier	2019-02-08	MURCIA II	790	SORIA	225
Murga Zenarruzabeitia, Andoni	2019-02-16	CURTIS (A Coruña)	600	ZUERA	270
Yañez Ortiz de Barron, Iratxe	2019-02-18	ALMERIA	960	VILLABONA	400
Sagardoi Lana, Xabier	2019-03-08	SORIA	225	IRUÑEA	0
Agirre Ibañez, Xabier	2019-03-11	OCAÑA	480	LOGROÑO	140
Fano Aldasoro, Unai	2019-03-11	ALGECIRAS	1100	SORIA	225
Galder Barbado Bonilla	2019-03-15	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	DAROCA	340
Aitor Zelaia	2019-03-15	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	DAROCA	340
Urrutia Gonzalez, Oier	2019-03-29	A LAMA (Pontevedra)	730	LOGROÑO	140
Unai López de Okariz	2019-04-03	GRANADA (Albolote)	840	DAROCA	340
Idoia Martinez García	2019-04-09	A LAMA (Pontevedra)	730	VILLABONA	400
Asier Borrero Toribio	2019-04-17	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	DUEÑAS	300
Asier Bengoa Lpz. de Armentia	2019-04-22	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	HERRERA	600
Karlos Apeztegia Jaka	2019-04-23	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	OCAÑA II (Toledo)	480
Mikel Karrera Sarobe	2019-05-21	REAU-SUD-FRANCILIEN	870	LANNEMEZAN	280
Jon Rubenach Roiz	2019-05-22	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	MANSILLA (León)	360
Aitzol Iriondo Yarza	2019-06-06	MOULINS-YZEYRE (E. f.)	740	LANNEMEZAN	280
Ekaitz Samaniego Curiel	2019-07-04	MURCIA II	790	ZUERA	270
Garikoitz Aspiazu Rubina	2019-07-08	ARLES	700	LANNEMEZAN	280
Ainhoa Gartzia Montero	2019-07-11	MURCIA II	790	TOPAS	450
Goitia Abadia , Oier	2019-07-11	VILLABONA	400	TOPAS	450
Xabier Goienetxea Iragorri	2019-09-11	FRESNES	850	MONT-DE-MARSAN	
Marixol Iparragirre Guenetxea	2019-10-01	SOTO DEL REAL (Madrid)	400	BRIEVA (Ávila)	323
Iñaki Reta de Frutos	2019-10-02	FRESNES	850	MONT-DE-MARSAN	
Alaitz Aramendi Jaunarena	2019-10-24	RENNES		ROANNE	
Jon Enparantza Agirre	2019-10-29	ZABALLA	0	ESTREMEREA	514
Arantza Zulueta Amutxastegi	2019-11-11	ZABALLA	0	VALENCIA	

ASKATZEAK / Libertades / Libérations

			Espetxea Prisión Prison	Urte espetxean Años en prisión Années en prison	
Albisu Iriarte, Mikel	2019-01-22	REAU-SUD-FRANCILIEN (Entregado a España)		15	1
Aginako Etxenagusia, Asier	2019-01-31	VALENCIA III		15	5
Ibarrola Pérez, Julen	2019-02-10	BASAURI		2	1
Urizar de Paz, Germán	2019-02-28	ALGECIRAS, Cádiz		28	1
Etxebarria Sagarzazu, Kepa	2019-03-08	ZUERA, Zaragoza		20	1
Aranalde Ijurko, Maite	2019-03-11	SOTO DEL REAL, Madrid		9	4
Zengotitabengoa, Andoni	2019-03-28	Vale de Judeus, PORTUGAL		9	1
Aitzol Gogorza Otaegi	2019-04-02	BASAURI		20	6
Mikel Orbegozo Etxarri	2019-04-04	VALLADOLID		14	1
Xabier Sagardoi Lana	2019-04-06	IRUÑEA		6	1
Ekaitz Ezkerra Laspeñas	2019-04-07	BURGOS		6	1
David Pla Martin	2019-04-18	OSNY (Entregado a España)		4	1
Joseba Segurola Kerejeta	2019-04-30	MADRID		14	1
Iñaki Beaumont Etxeberria	201-05-18	SORIA		19	1
Marina Bernadó Bonada	2019-05-23	RENNES (Entregado a España)		12	1
Otxoa de Eribe, Jose Angel	2019-07-05	CASTELLÓ I		19	7
Zabaleta Elosegi, Jose Javier	2019-07-27	ZUERA, Zaragoza		29	1
Ugarte Villar, Xabier	2019-07-28	TOPAS, Salamanca		22	1
Zelaia, Aitor	2019-07-30	DAROCA, Zaragoza		6 meses	4
Barbado Bonilla, Galder	2019-08-01	DAROCA, Zaragoza		6 meses	4
Merodio Larraona, Zigor	2019-09-19	MONT-DE-MARSAN		13	1
Ilundain Iriarte, Alberto	2019-11-15	VALLADOLID		18	4
Garro Pérez, Zigor	2019-11-28	MONT-DE-MARSAN		13	8
López Gómez, Jon	2019-11-29	ZUERA, Zaragoza		15	1

(*) (1) Zigorra beteta / Cumplimiento íntegro de la condena / Fin de la peine

(2) Espainiar estatuaren esku utzi ondoren. Tras ser entregado por el Estado francés / Après avoir été remis par L'État espagnol

(3) Estradizio eskaria ukatua / Rechazada la demanda de extradición / Demande d'extradition refusée

(4) Behin-behineko askatasuna / Libertad provisional / Liberté provisoire

(5) Zigor etena eritasun larriagatik / Suspensión de condena por enfermedad grave / Suspension de peine pour maladie grave

(6) Espetxe arindua eritasun larriagatik / prisión atenuada por enfermedad grave / prison atténuée pour maladie grave et incurable

(7) Baldintzapeko askatasuna eritasun larriagatik / Libertad condicional por enfermedad grave / liberté conditionnelle pour maladie grave et incurable

(8) Baldintzapeko askatasuna, kautelazko neurriekin (Estatu frantsesean) / Condicional con medidas cautelares (Estado francés) / libération conditionnelle avec des mesures conservatoires (Etat français)

FRANTZIAR ESTATUAK ESPAINIAR ESTATUARI ENTREGATUAK

Entregados/as por el Estado francés - Remis/e/s par l'État français à l'État espagnol

Albisu Iriarte, Mikel	2019-01-22
Bengoa Lpz. de Armentia, Asier	2019-02-06
Borrero Toribio, Asier	2019-02-27
Rubenach Roiz, Jon	2019-04-17
Segurola Kerejeta, Joseba	2019-04-30
Ilundain Iriarte, Alberto	2019-05-28
Bernadó Bonada, Marina	2019-06-03
Iparragirre Guenetxea, Marixol	2019-09-04

1.2 GRADUEN POLITIKA

Espainiako Estatuan espetxeratutako 205 presoetatik 43 bakarrik daude 2. graduan. 43 horietatik 22ri 2019. urtean zehar egin zaie gradu-aldaketa.

162 preso 1. graduan daude :

- 31, erregimen zorrotzengan: erregimen itxian edo bakartze erregimenean, Sevilla, Kordoba, Huelva eta Estremerako espetxeetan.
- 27, 1. graduko moduluetan, Santa Maria, Texeiro eta Mansillako espetxeetan.
- 70, modulu arruntetan.
- 34, malgutasun handieneko erregimenean (100.2 art.)

3. graduan ez dago inor. Espainiako Estatuan bi kasutan bakarrik eman da 3. gradua: Xabier Sagardoiri, behin betiko askatasuna baino 28 egun lehenago, eta Jose Angel Otxoa de Eriberen kasuan gradu aldatzearen ondorioz baldintzapeko askatasuna lortu zuen, gaixotasunaren azken fasean aurkitzen zelako.

1.3 BALDINTZAPEKO ASKATASUNA

- Espainiako Estatuko 58 preso euskaldun egon zitezkeen baldintzapeko askatasunean, beren zigorraren 3/4 beteak dituztelako. Baina, hori eragotzi egiten du egungo gradu-politikak.
- Frantziako Estatuko 4 euskal preso egon zitezkeen baldintzapeko askatasunean. Horietatik 3k (Xistor Haranburu, Jon Kepa Parot eta Lorentxa Beyrie) aspaldi gairituak dituzte jasotako zigorrek ezarritako baldintza guztiak ("ziurtasun" epea barne dela). Hiru kasuetan epaileek baldintzapeko askatasuna onartu dute, egoera berriari aipamena eginez, gainera; baina terrorismoaren aurkako fiskaltzaren helegiteek sistematikoki geldiarazi dute epaileen erabakia.

1.4 LARRIKI GAIXO DIREN PRESOAK

- Gaur egun 19 preso daude (urtearen hasieran 21) gaixotasun oso larri eta sendaezinen diagnostikoa dutenak:
 - Kardiopatia iskemiko larrien diagnostikoa duena: 61 urte, Euskal Herritik 725 kilometrora urrundua; 20 urteko espetxean.
 - Espondiloartropatia kronikoa: 59 urte, Euskal Herritik 1100 kilometrora urrundua; 15 urte espetxean.
 - Nortasunaren Nahaste Iraunkorraren diagnostikoa, eldarniozko ideien esperientzia katastrofikoaren ondorioz. 22 urte espetxean. Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora urrundua.
 - Minbiziaz diagnostikatuak:
 - Koloneko minbizia. 60 urte. Euskal Herritik 650 kilometrora urrundua; 17 urte espetxean.
 - Mihi gaineko epidermiako minbizia. 49 urte; 21 urte espetxean; Euskal Herritik 170 kilometrora espetxeratua.
 - Barrabletako tumorea; Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora espetxeratua; 8 urte baino gehiago espetxean.
 - Tiroideseko minbizia; Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora espetxeratua; 15 urte baino gehiago espetxean.
 - Espondilitis ankilosatzailearen diagnostikoa dutenak:
 - 39 urte; Euskal Herritik 1000 kilometrora urrundua; 16 urte espetxean.
 - 15 urte baino gehiago espetxean; Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora urrundua.
 - Patologia anitzaz konplikatua; 55 urte; etxetik 170 kilometrora espetxeratua; 18 urte espetxean.
 - Eboluzio luzeko miopia magna eta betsareko hemorragiaren diagnostikoa duena; 55 urte; etxetik 440 kilometrora espetxeratua; 23 urte espetxean.
 - Esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa; 49 urte; 6 urte Frantziako Estatuko espetxean, Euskal Herritik 280 kilometrora.
 - Diabetes Mellitus, aurikularen fibrilazioa eta betsarearen askatzearen diagnostikoak ditu; 69 urte; Frantziako Estatuan espetxeratua, Euskal Herritik 280 kilometrora; 12 urte espetxean.

- Eskizofrenia paranoidea eta aortako balbulopatiaren diagnostikoa; 57 urte; Euskal Herrian espetxeratua; 17 urte espetxean.
 - 3. faseko GIBaren diagnostikoa; 46 urte; Euskal Herriko IHESaren aurkako zentro batean betetzen du zigorra.
 - Sindrome koronarioaren diagnostikoa duena; 47 urte; etxetik 460 kilometrora; 16 urte espetxean.
 - Artropatia psoriasikoaren diagnostikoa; Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora urrunda; 15 urte baino gehiago espetxean.
 - Izaera psikotikoko depresio larriaren diagnostikoa; Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora espetxeratua; 20 urte baino gehiago espetxean.
- Larrienak diren 19 kasu horietatik aparte, badira beste 53 preso, gaixotasun organikoak jasaten dituztenak eta laguntza mediku zorrotza eskatzen dutenak. Beste 12 presok gaixotasun psikikoak jasaten dituzte; horietatik 6k arreta eta jarraipen zehatza eskatzen dute.
 - Urte honetan zehar 3 preso-ohi hil dira; pertsona horiek hilabete batzuk lehenago askatu zituzten, gaixotasunaren azken fasean aurkitzen zirela ikusita. 3 kasuetan gaixotasunaren metastasi aurreratuak jasaten zituzten, gaixotasunaren ondorioz espetxetik atera zituztenean.
 - 2019-01-06: Juan Mari Maiezkurrena zendu zen. 7 urte eta erdiko espetxe-zigorra betetzen zuen. Fidantzapeko askatasunean egon zen 2014ko maiatzera arte. Entzutegi Nazionalak zigorra etetea erabaki zuen 2017ko ekainean.
 - 2019-01-26: Oier Gomez Mielgo zendu zen. 2017ko apirilaren 26an gelditu zen aske, zigorra etetea erabaki ondoren. 2013tik minbizia jasaten zuen eta 2017ko urtarrilean Ewing-en sarkoma eta metastasi orokortua diagnostikatu zitzaion
 - 2019-20-29: Jose Angel Otxoa de Eribe zendu zen. Baldintzapeko askatasunean irten zen uztailaren 5ean, gaixotasunaren azken fasean zegoelako. 61 urte zituen, 19 urte zeramatzan espetxean eta zigorraren 3/4ak beteak zituen.
 - Larriki gaixo diren bi preso espetxetik atera zituzten
 - 2019-01-31: Entzutegi Nazionalak erabaki zuen Asier Aginako Etxenagusiaren zigorra etetea, jasaten zuen gaixotasun larriaren ondorioz. Data horretan jadanik 15 urte beteak zituen espetxean eta bat falta zitzaion zigorra betetzeko.
 - 2019-04-02: Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak duela 8 urtetik gaixotasun psikologiko larri bat jasaten duen Aitzol Gogorzari espetxe arindua ematea erabaki zuen. Espetxean 20 urte bete ditu.

- Larriki gaixo diren bi preso ospitaleratuak
 - 2019-06-05: Txus Martin Hernando, gaixotasun psikiko larri bat, aortako balbulopatia batekin konplikatua duenari, bihotzeko ebakuntza bat egin zioten.
 - 2019-04-30: Josetxo Arizkuren Ruiz Murcian ospitaleratu zuten, kardiopatia iskemiko larriaren diagnostikoa duelako eta krisi kardiako bat jasan zuelako.
- Atxilotu bat, Frantziako Estatuko ospitale batean sartzean
 - 2019-05-06: Ospitalera sartzera zihoala, aparkalekuan atxilotu zuten Josu Urrutikoetxea Bengoetxea. Atxilotetaren ostean, ospitaleratu egin behar izan zuten. Zaintzen zuen sendagilearen irizpide profesionalaren arabera, gehienez ere 30 eguneko epearen barnean egin behar zioten ebakuntza Urrutikoetxeari. Ebakuntza kirurgikoa ez zen programatu uztailaren 15era arte; bi aldiz utzi zuten bertan behera, segurantzaren arrazoiengatik, eta ez zen gauzatu irailaren 2ra arte, sendagileek finkaturiko gehieneko epemugarekiko hiru hilabeteko atzerapenarekin.
- Ibon Fernández Iradiri laugarren aldiz ukatzen zaio espetxetik irteteko eskaera. Berriro ere abian jarri zen esklerosi anizkoitza duen Fernandez Iradi espetxetik ateratzeko prozedura. Frantziako Estatuko Epaitegiak onartu zuen, baina, baldintzapekoen kasuan gertatzen denez, fiskaltzaren helegiteak geldiarazi zuen.

1.5 BAKARTZEA

Bakartzea eta zigorra bakardadean betetzea.

31 preso daude bakartze zorrotzeko erregimenean Espainiako Estatuan. Gainera:

- 6 preso gizonezko (Espainiako Estatuan, 4 eta Frantziako Estatuan, 2) beste euskal presorik ez dagoen espetxeetan daude, bakarrik.
- 12 preso emakume daude bakarrik, beste euskal preso emakumerik ez dagoen espetxeetan (gehienbat gizonentzat diren espetxeetako emakumeen moduluak dira).

1.6. SENITARTEKO ETA LAGUNAK: ISTRIPUAK

Euskal preso politikoaren senitarteko eta lagunek presoak bisitatzeko egindako joan-etorrietan urtean zehar gertatutako 8 istripuetatik lehena urtearen hasieran gertatu zen. Urteko balantzea hau da: istripuetan kaltetuak 17 lagun izan dira, eta horien arteko bi adin txikikoak.

2019-01-01: Une hartan Arlesen, etxetik 665 kilometrora espetxeraturik zegoen Garikoitz Aspiazuren (Andoain) neskalagunak eta semeak istripu bat izan zuten, bisitalditik irtetean; bihurgune batean atzetik zihoan kotxe batek jo zituen eta autoak ihes egin zuen, aseguruarentzat gertakarien parte heldu gabe.

2019-01-28: Jesus Mari Etxeberria Garaikoetxearen (Orereta) bi adiskidek istripua izan zuten Sevilla inguruan, Puerto III-ko espetxera zihoazenean. Aurrez istripua izandako bi kotxerekin tupust egin zuten, bihurgune batetik irtetean.

2019-02-03: Jon Mirena San Pedro Blanco-ren (Bilbo) bi adiskidek istripua izan zuten Pancorbo inguruan, Herrera de la Mancha-tik itzultzean; aurretik zihoan kotxea elurretan labaindu zen eta euskal presoaren adiskideen kotxeak ezin izan zuten talka ekidin.

2019-02-03: Asteburu bereko bigarren istripua. Luis Mariñelarena Garciandiaren (Etxarri Aranatz) bi adiskidek, Curtis-ko espetxera zihoazela, labain egin zuten errepidearen egoeratik eta lehenik beste kotxe baten kontra tupust egin zuten eta, gero, hesi babeslearen kontra.

2019-05-12: Oier Urrutia González-en (Gasteiz) adiskide bat, Logroño-ko espetxera zihoala, beste kotxe batek jo zuen. Ezin izan zuten bidaia jarraitu eta bisita galdu zuten.

2019-06-01: Aitzol Iriondoren (Lasarte) hiru adiskidek istripua izan zuten Euskal Herritik 629 kilometrora dagoen Moulins-Yzeure-ko espetxera zihoazela, animalia bat galtzadan gurutzatu zitzaizenean.

2019-11-24: Ainhoa Mujika Goñi eta Jon Olarra Guridiren (Donostia) bi adiskidek istripua izan zuten, Euskal Herritik 840 kilometrora dagoen Granadako Alboloteko espetxera zihoazela, galtzadako egoeraren ondorioz beste kotxe batekin tupust egin zutenean.

2019-11-24: Asteburu bereko bigarren istripua. Olga Comes Arranbillet-en (Iruñea) bi adiskidek, bietako bat adin txikikoa, istripua izan zuten Villabonan (400 km), bisita bat egitetik itzultzean bihurgune batean haien kotxea errepidetik irten zenean.

Kasu bakar batean ere ez zen gertatu kalte larririk, nahiz eta hor egon errepideko istripuek uzten dituzten kontusioak, azterna fisiko eta psikikoak eta kalte materialak, arinenak izanik ere.

2. ERBESTERATUAK – DEPORTATUAK

Urte honetan zehar 2 erbesteratu eta 3 deportatu itzuli dira Euskal Herrira, euren egoera erregularizatzean:

2019-01-07: Inaxio Olaskoaga (Donostia), 22 urtez erbesteratuta egon ondoren.

2019-03-02: Iñaki Etxarte Urbieta (Donostia). Kubatik. 1986ko urtarrilaren 18an Cabo Verde-ra deportatua. Handik hilabete gutxi batzutura Kubara joan zen.

2019-07-24: Iñaki Orueta (Donostia). 40 urte erbesteratuta eman eta gero.

2019-08-15: Koldo Zurimendi Oribe (Amurrio). Venezuelatik. 1987ko urrian Aljeriara deportatua, eta 1989ko maiatzaren 5ean, Venezuelara.

2019-08-15: Arturo Cubillas Fontan (Donostia). 1987ko urrian Aljeriara deportatua eta Venezuelara, 1989an.

2019-09-30: Alfonso Etxegarai. Sao Tomé-tik Ecuador-era 1985ean deportatua. Anjel Aldana Barrenarekin batera Quiton Espainiako poliziak bahitu eta torturatu zuen, Ecuadorreko poliziarekin lankidetzan. 1986ko abuztuan Sao Tomé-ra deportatua.

3. ESPETXE POLITIKAREN KONTRAKO EKIMEN POLITIKOAK

2019-02-04: Dublin Hiriko Kontseiluak mozio bat onartu zuen: Espainiako Estatuari eskatzen zion bertan behera utz ditzala euskal preso politikoak sakabanatzeko praktika eta presoek eta haien familiei jartzen zaizkien zailtasun guztiak. “Espainiako Estatuak euskal preso independentistak Estatuako espetxe urrunekoetara sakabanatzeko daraman politika jarraitua” deitoratzen du mozioak eta esaten du politika honek izugarriko zailtasun ekonomiko eta fisikoak sortzen dizkiela espetxeratuen senitartekoei eta ibilbide luzeko bidaiak hildako biktimak sortzen dituzten istripuak eragiten dituztela”. “Presoak euskal lurraldean birkokatze eta espetxetik askatzeko programari” sostengua eman behar zaiola defendatzen du mozioak.

Aldi berean, onartutako testuaren terminoak Espainiako Enbaxadoreari eta Irlandako Legebiltzarreko Kanpo Arazoetarako eta Merkataritza Batzordeari jakinaraztea erabakitzen du.

2019-06-12: Sare izeneko sare hiritarrak Euskadiko Legebiltzarrean aurkeztu ditu Hego Euskal Herriko 59 udalerrik sakabanatzearen amaiera eskatzeko onartu dituzten 59 ebazpenak.

2019-11-25: Nafarroako Parlamentuak presoak hurbiltzearen aldeko adierazpen bat onartzen du, haren kontrako boza Navarra Sumak bakarrik eman duelarik.

Adierazpen horretan Nafarroako Parlamentuak beharrezko ikusten du bestelako espetxe politika bat, presoaren bizilekutik eta familiarik urrun espetxe-zigorra betetzea eragotziko duena, presoaren eta haren familia eta adiskideen arteko harremana erraztuko duena.

2020-01-21: Friendship, Europako Legebiltzarreko bitarteko taldeak indarrean dagoen legealdian izango duen osaera aurkeztu zuen. Hartu zuen lehen erabakia Espainiako Gobernuko Presidenteari, Pedro Sánchez-i, eta Europako Legebiltzarreko presidenteari, David Sassoli-ri, gutun bat bidaltzea izan zen. Gutun horretan presoaren sakabanatzearen amaiera eskatzen da eta gaixotasun larriak dituzten presoaren askatasuna eskatzen da. Friendship-eko 21 euro-legebiltzarkidek eta beste 17 talde politiko ezberdinek izenpetu zuten gutuna.

ONDORIOA

Pedro Sánchezek espetxe-politikan aldaketak agindu zituenetik urte eta erdi iragan denean, ez dira eman oraindik espetxe-politika aldatzen ari dela esateko beharrezkoak diren urratsak.

2018an eta 2019an zehar hain urrunekoak ez diren espetxeetara 26 preso lekualdatu badira ere, presoaren Kolektiboak, batez ere Espainiako Estatuan, Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan jarraitzen du. Frantziako Estatuaz ari garenean, hurbileneko espetxeetan presoaren %80 inguru dagoela esan badezakegu ere, Espainiako Estatuan urruneneko presondegietan presoaren %66 dagoela esaten dugu; iragan urtean baino ehuneko handiagoa, orduan %63 baitziren. Horren ondorioak 15 helduk eta 2 adingabekok zuzenki jasan zituzten, 2019an zehar bisitak egiteko bidaietan gertatutako 8 istripuetan.

26 lekualdatze horiek, kasu askotan, bidaia luzeak eginarazten dituzte, senitarteko eta adiskideentzat arriskuak eta higadura fisikoa, psikikoa eta ekonomikoa ekarriz. 800 kilometrotik gorako ibilbideez ari gara. Kontrako zentzuan, 5 urrutze egon dira. Era berean, kasu bakan batzuetan bakarrik gertatu dira gradu aurrerapenak edo malgutu da 1. graduako erregimena, gradu horretan betetzen baitute euskal preso politikoek beren zigor osoa. Eta baldintzapeko askatasunek debekatuta jarraitzen dute bi estatuetan. Espainiakoan, 3. gradura heltzea eragotzen duen espetxe politika batengatik; Frantziakoan, gradu hori emateari behin eta

berrito uko egiten diotelako, eskatzen den baldintza bakarra, “segurantzaren denboraldi” deitua gainditu baldin bada ere.

Larriki gaixo diren presoek egoerak ez du adaketa izan, ez Espainiako Estatuan, ez Frantziakoan, eta gaixotasunak azken estadiora iritsi direnean soilik atera izan dituzte espetxetik preso batzuk. Egoera berean aurkitzen dira 70 urte baino gehiagoko preso euskaldunak. Bestalde, 52 euskal preso politikok gainditu dituzte zigorraren 20 urteak; hau da, gaixotasun fisiko eta psikikoak sustatzen dituen inguru batean egon dira preso horiek eta hori nabarmena da gaixotasun horiek jasaten dituzten presoek kopurua kontuan hartzen badugu. Espetxean bertan nekez eman daitezkeen jarraipena eta arreta behar dituzte preso horiek.

Kalean zein Erakundeetan, maila nazionalen nahiz nazioartekoan gertatzen diren mobilizazio eta ekimenek behin eta berrito agirian jartzen dute egungo espetxe politikari amaiera eman beharra. Espainiako eta Frantziako gobernuak euskal gizartearen eskaerei entzungor egiten jarraitzen dute.